

BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA

PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE

KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN

**EUSKARA ETA LITERATURA
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

2023ko azaroa /noviembre 2023

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

<p>Proba honek bi atal ditu: bata testuaren ulermenari eta hizkuntzaren ezagutzari lotua; eta bestea, idazmenari. Atal bakoitzak bost (5) puntu balio du.</p> <p>Idazmenean, gai beraren inguruko bi testu proposatzen dira: luzea eta laburra. Azterketariak aukeratuko du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du*. Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatzeko, bi atalen arteko batazbestekoa egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none">● Testuari lotutako galderen puntuaziona (5 puntu)● Idazmenaren puntuaziona (5 puntu) <p>Gaztelania eta literatura proba ere modu berean baloratuko da.</p> <p>* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo litzateke idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.</p>	<p>En esta prueba se puntuará de manera separada la expresión escrita del resto de las cuestiones. Las primeras siete cuestiones sobre el texto se puntuarán con un total de 5 puntos.</p> <p>La expresión escrita, por su parte, se puntuará también con un máximo de 5 puntos. El texto que el alumno escoja para escribir en castellano, ya sea el texto corto o el texto largo, se puntuará con 5 puntos, por lo que la puntuación total del examen de Lengua Castellana saldrá de la media de las dos puntuaciones:</p> <ul style="list-style-type: none">● Puntuación de las cuestiones sobre el texto● Puntuación de la expresión escrita <p>La prueba de euskara se valorará de la misma manera.</p> <p>En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.</p>
---	--



JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.
2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, zure erantzunak berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio zeinuei. .

INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.



1^aPARTE

LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2023ko azaroa /noviembre 2023

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

De la pizarra al algoritmo: cómo la inteligencia artificial está cambiando la forma de aprender y de enseñar

Alumnos y profesores han comenzado a utilizarlas de manera generalizada, lo que plantea si es necesario cambiar las reglas

27.05.2023 | Por SAMUEL A. PILAR

¿Está amenazada la profesión de docente?



Ilustración 1GETTY IMAGES

Igual que ha ocurrido con otras muchas profesiones, la irrupción de la inteligencia artificial en las aulas también ha sido vista como una amenaza directa para el docente, cuya labor podría verse debilitada en este nuevo contexto. Aunque nada más lejos de la realidad. "El rol del profesor, desde mi punto de vista, se hace más importante que nunca, especialmente

aquellos que integren modelos y desarrollen competencias", afirma **María del Mar Sánchez Vera**, de la Universidad de Murcia. "Antes, el conocimiento y la información estaban en la escuela, en las universidades, pero ahora la información está en la red, y el docente lo que tiene que hacer es facilitar y ayudar a que esa información se convierta en conocimiento. **Su rol se transforma, pero quizás es más importante que nunca**", reflexiona.

Pero si el impacto desde el punto de vista docente ha sido grande, aún ha sido mayor entre los alumnos, que disponen de un arma de doble filo capaz de automatizar los procesos más rutinarios y ayudarles en múltiples aspectos, aunque también de la chuleta más potente que ha existido nunca, **en forma de herramienta que puede invitar a la ley del mínimo esfuerzo, al plagio y a la trampa**. Esto hace que quizás el verdadero desafío de los profesores no sea impedir el uso de estos programas por parte de los estudiantes, sino integrarlos en los sistemas educativos, fomentando capacidades como el pensamiento crítico o la creatividad.

Robert Clarisó, de la Universitat Oberta de Catalunya (UOC), compara la llegada a las aulas de ChatGPT con la de las calculadoras. "Igual que cuando aprendemos a multiplicar no está permitido utilizar una calculadora, pero más adelante forma parte del arsenal habitual de herramientas. O igual que no te

permiten utilizar el corrector ortográfico cuando estás aprendiendo ortografía, pero más adelante no solo se permite, sino que se espera que se utilice, yo lo que pienso es que **se generalizará este tipo de herramientas para mejorar el resultado de tareas más sofisticadas**", prevé.

Para concluir, le pedimos a ChatGPT que cierre este artículo con un último párrafo, en el que también destaque sus aspectos negativos. Y su opinión no es muy diferente de la de los especialistas consultados.

"En resumen, el uso de ChatGPT y la inteligencia artificial en la educación tiene beneficios como la personalización del aprendizaje y el acceso instantáneo a la información. Sin embargo, también plantea desafíos como la disminución de la creatividad, las brechas digitales y la preocupación por la privacidad. **Es crucial encontrar un equilibrio entre la tecnología y los aspectos humanos del aprendizaje**".

- » [Noticias](#) » [Ciencia y tecnología](#)

rtve Radiotelevisión Española (RTVE)

(Texto adaptado)

1. ¿Dónde puede estar publicado este artículo? (0.5 puntos)

2. Exprese en una frase (máximo 2 líneas) el tema central del texto (0.5 puntos)

3. Explique brevemente que significa la expresión “brecha digital”. (0.5 puntos)

“Sin embargo, también plantea desafíos como la disminución de la creatividad, las brechas digitales y la preocupación por la privacidad”

4. ¿Puede deciros en qué consiste el plagio? (0.5 puntos)

*“...en forma de herramienta que puede invitar a la ley del mínimo esfuerzo, al **plagio** y a la trampa”*

5. Sustituye los términos subrayados por sinónimos, teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (0.5 puntos)

	SINÓNIMO
“El rol del profesor, desde mi punto de vista...”	
“¿Está amenazada la profesión de docente ? ”	
“..ayudarles en múltiples aspectos..”	
“Para concluir , le pedimos a ChatGPT ..”	
“..el acceso instantáneo a la información”	

6. Enumere dos ventajas o aspectos positivos del uso del ChatGPT y de la inteligencia artificial, que aparecen en el texto (0.25 puntos)

7. Robert Clarisó compara la llegada a las aulas de ChatGPT con otras dos situaciones. ¿Puede decirnos cuáles? (0.25 puntos)

8. ¿Puede decirnos en que consiste la figura literaria de la Comparación o Símil? Ponga dos ejemplos (1 punto)

9. El término “Siglo de Oro” evoca a una época, desde principios del siglo XVI a mediados del XVII, donde se produjo un florecimiento de las artes y la literatura. Relacione cada autor de esta época con su obra literaria (1 punto)

Autores: *Lope de Vega, Santa Teresa de Jesús, Miguel de Cervantes, Francisco de Quevedo, Calderón de la Barca*

Obras: *“La vida es sueño”, “Fuenteovejuna”, “Camino de Perfección”, “Historia de la vida del Buscón”, “Don Quijote de la Mancha”*

Lope de Vega: _____

Santa Teresa de Jesús: _____

Miguel de Cervantes: _____

Francisco de Quevedo _____

Calderón de la Barca _____

2. ATALA

EUSKARA ETA LITERATURA

2023ko azaroa / noviembre 2023

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

2. atala

EUSKARA ETA LITERATURA

Irakurriaren ulermenaren (5 puntu)

Irakurri testua eta erantzun ondoren datozen galderei. Galdera bakoitzaren ondoan dator puntuazioa.

Adimen artifiziala

2023 URT. 22
AMAIA URIBE

Adimen artifizialarekin beldurtuta nago. Edo kezkatuta. Edo biak. Aurrerapena dela saltzen digute, baina hala ote da? Egunotan irakurri dut Microsoftek ahots bat hiru segundoz entzun eta ahots hori imitatu dezakeen aplikazioa sortu duela. Datorren hilabetean, berriz, lehenengo epaitegi batean makina batek defendatuko du trafiko arauak hausteagatik epaituko duten gidaria.

Eta ezin ahaztu ChatGPT aplikazioa. Adimen artifiziala erabiltzen duen txat honek zoramena eragin du mundu osoan. “Kaixo” esan eta “kaixo” erantzuten du. Gernikako bombardaketari buruzko informazioa eskatu eta 113 hitzeko testua idazten du. Eguzkiari buruzko olerki bat egiteko eskatu, eta horixe ere egin du. Horren trebea da, ezen New Yorkeko eskoletan neurriak hartu baitituzte. Irakasle batek filosofo bati buruzko idazlana egiteko agindu zien ikasleei eta euretako bat aplikazio hau erabiltzen harrapatu zuen. Harrituta geratu zen chatbot horrek egindako idazlanaren kalitatearekin. Ikasleek iruzurrik egin ez dezaten, New Yorkeko eskola guztietan debekatu egin dute aplikazioa.

Gogoan dut ikastolako lanak egiteko informazioa Lur Hiztegi Entziklopedikoan bilatzen genuen garaia. Alfabetoari jarraituz liburuki bat hartu, atzamarrarekin orriak pasatu eta behar genuen informazioa koadernoan idazten genuen. Gaur egungoa baino prozesu konplexuagoa zen, baina informazioa gehiago barneratzen genuen.

Atera kontuak. Duela 23 urte, Norvegiari buruzko lan bat egitea tokatu zitzaidan eta oraindik ez zait ahaztu 1.700 fiordo inguru daudela Norwegian eta 1905. urterako Norvegiak eta Suediak herrialde bakarra osatzen zutela. Hori bai, ez galdezu atzo Googlen zer bilatu nuen, informazio hori bilatu ahala ahazten baitut.

Nik, behintzat, argi daukat. Ez zait ondo iruditzen nik egin behar dudan idazlana makina batek egin dezan. Hezur-haragizko abokatu batek adimen artifizialak baino konfiantza gehiago eragiten dit. Eta ez dut nahi inork nire ahotsa imitatzeko gaitasuna izaterik. Garaia aldatzen ari dira eta teknologia berrien alde nago, baina dena neurrian. Izan ere, makinak gizatiartzearekin batera gizakiak mekanizatzeko arriskua dago.

1. Zergatik dio beldurra idazleak adimen artifizialari? (0.5 puntu)

2. Zein neurri hartu dute New Yorkeko eskoletan? (0.25 puntu)

- A. New Yorkeko eskoletan ezin da adimen artifiziala erabili.
- B. New Yorkeko ikasleek ezin dute adimen artifiziala erabili idazlanak egiteko.
- C. New Yorkeko eskoletako ikasleek ezin dute Chat GPT erabili.
- D. New Yorkeko ikasleek idazlanak aplikazioen laguntzarik gabe egingo dituzte.

3. Zergatik dio idazleak hobeto gogoratzen duela liburueta bilatutako informazioa? (0,5 puntu)

- A. Informazioa koadernoan idazten zuelako.
- B. Informazioa bilatzeko Hiztegi Entziklopedikoa erabiltzen zuelako.
- C. Googlen aurkitutako informazioa ezin delako gogoratu.
- D. Prozesuak lan gehiago ematen zuelako.

4. Zein da idazlearen iritzia adimen artifizialari buruz? (1 puntu)

5. Zer esan nahi du: “*makinak gizatiartzearekin batera gizakiak mekanizatzeko arriskua dago*”? (0,5 puntu)

6. Idazleak teknologia berriak gizakien aurkakoak direla uste al du?
(1 puntu)

7. Zein motatako testua da hau? (0,25 puntu)

- A. Albistea.
- B. Artikulua.
- C. Erreseina.
- D. Iragarkia.

8. Testua objektiboa da edo subjektiboa? Zergatik? (0,5 puntu)

9. Lotu testuko hitz hauek antonimo batekin, adibidean bezala:
(0,5 puntu)

Testuko hitzak	Antonimoak
trebe	trakets
konplexu	ahaztu
artifizial	baimendu
debekatu	soil
gogoan izan	egia esan
iruzur egin	natural



3. ATALA

IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA

EUSKARA ETA LITERATURA LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

SINADURA/ FIRMA:

<p>Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.</p> <p>KONTUZ! Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten baditzu, ez da kontuan hartuko atal hori.</p>	<p>En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tratan sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual. Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera.</p> <p>Pero, CUIDADO, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.</p>
--	---

TESTU LABURRA (5 puntu)	TEXTO CORTO (5 puntos)
<p>Iragarkia idatzi egunkarian. (90-11 hitz)</p> <p>Egoera: Zure lagunak eta zuk idazkari artifizial bat asmatu duzue. Eta uste duzue dirua irabazi dezakezuela asmaketa horrekin.</p> <p>Ataza: Iragarkia idatziko duzu egunkarian argitaratzeko. Idazkari artifizialaren abantailak azalduko dituzu: zertan lagundu dezakeen, zenbat denbora aurreztu daitekeen... Horretaz gain, ordainsaria jarriko duzu eta erostera bultzatu.</p> <p>.</p> <p>Testuak 90-100 hitz eduki behar ditu.</p>	<p>Escribe un anuncio en el periódico. (90-100 palabras)</p> <p>Situación: Entre un compañero y tu habéis inventado un secretario artificial. Y pensáis que podéis ganar dinero con el invento.</p> <p>Tarea: Vas a escribir un anuncio para el periódico. Expondrás las ventajas del secretario artificial: en qué puede ayudar, cuánto tiempo se puede ahorrar...Además, pondrás un precio y animarás a que compren.</p> <p>El texto debe tener entre 90-100 palabras.</p>

TESTU LUZEA (5 puntu)	TEXTO LARGO (5 puntos)
<p>Teknologia berriei buruz iritzia eman behar duzu, bereziki adimen artifizialari eta ChatGPT aplikazioari buruz (180-200 hitz)</p> <p>Egoera. Zenbaitek esaten dute gaur egun adimen artifizialak abantaila asko dituela eta aukera handiak sortzen dituela.</p> <p>Beste batzuk uste dute arriskutsua eta mehatxuzkoa dela. Egia dena da, sortu zenetik, ChatGPT gero eta gehiago erabiltzen dela</p>	<p>Debes opinar sobre las nuevas tecnologías y en concreto sobre la inteligencia artificial y el ChatGPT (180-200 palabras)</p> <p>Situación: Algunos dicen que la Inteligencia Artificial presenta muchas ventajas y crea grandes oportunidades hoy en día.</p> <p>Otros en cambio, la consideran peligrosa y una amenaza. Lo cierto es que desde su aparición, el uso del chatGPT se ha generalizado entre</p>

ikasle eta irakasleen artean.

los estudiantes y docentes.

Ataza: Zure iritzia emango duzu ChatGPT eta adimen artifizialari buruz.
Galdera hauek lagungarriak izan daitezke zure iruzkinerako: teknologia berriak beharrezkoak al dira? Zertarako? Zein dira Chat GPT aplikazioaren abantailak eta desabantailak? Denbora gehiegiz ematen al dugu sare sozialtan? Eragin psikologikoa izan dezake? ChatGPT aplikazioaren erabilera belaunaldi alfer eta inozoagoa sortuko du?

Testua antolatzeko kontuan hartu egitura hau:

- Sarrera: eztabaidea aurkeztu. Nahi baduzu, zure tesia aurkez dezakezu.
- Garapena: bi paragrafotan idatzi iritzi horren aldeko edo kontrako argudioak.
- Ondorioa: azken paragrafoan esandakoaren ondorioak idatzi.

Tarea: Vas a dar tu opinión sobre la inteligencia artificial y el ChatGPT.

Las siguientes preguntas pueden ser de ayuda para tu comentario: ¿Son necesarias las nuevas tecnologías? ¿Para qué? ¿Cuáles son las ventajas e inconvenientes del chatGPT? ¿No pasamos mucho tiempo con las redes sociales? ¿Nos pueden afectar psicológicamente? ¿El uso del ChatGPT no creará una generación más vaga y tonta?

A la hora de organizar el artículo ten en cuenta la siguiente estructura:

- Introducción: presenta la controversia y da tu opinión
- Desarrollo: En dos párrafos escribe argumentos a favor y en contra
- Conclusión: en un último párrafo escribe las conclusiones

Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:

- Bolígrafoz idatzi
- Saiatu garbi idazten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzi behar duzula.
- Zirriborro bat egin ideiak hobeto antolatzeko.
- Zirriborroa azterketarekin batera eman.
- Idazlana bukatzen duzunean, berrikusi eman baino lehen.
- Zure idazlana zuzentzeako honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Ea eskatutakoa bete duzun
 - Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun

- Utilizar bolígrafo para escribir.
- Intentar hacer una letra clara.
- Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas.
- Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas.
- Entregar el borrador con el examen.
- Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito.
- Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios:
 - contestar a lo solicitado.
 - escribir un texto adecuado.

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">○ Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun. | <ul style="list-style-type: none">○ utilizar una lengua correcta, coherente y rica. |
|--|---|

IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**SINADURA/ FIRMA:****TESTU LABURRA (5 puntu) / TEXTO CORTO (5 puntos)**

Emaila lagun bati/email a un amigo (90-100 hitz/palabras)

.....
.....
.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....



.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:

.....
SINADURA/ FIRMA:

TESTU LUZEA (5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)

Iritzi testua / Texto de opinión (180-200 hitz/palabras)

.....
.....
.....
.....
.....

5.....
.....
.....
.....
.....

.....
.....
.....
.....
.....

10.....
.....
.....
.....
.....

.....
.....
.....
.....
.....

15.....
.....
.....
.....
.....

20
25
30